

ASTEARTEA

2019/01/22
7. urtea, 992. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €



ENERITZMAIZ

TOLOSA **ataria** egiten duzuna gara **BERTSOZALEEN HITZORDUA**

Tolosako Leidor aretoa lepo bete zen TOLOSALDEKO ATARIAREN bertso jaialdia jarraitzeko; saioen atariko den 'bertsotxaldia' ireki zuten bertsolariek // 5

Martxorako irekiko du Tolosako Udalak, Elozegi parkea

Dorre-begiratokia amaitu berri dute eta 2019. urtean zehar urmael bat sortuko dute depositu-putzuan, biodibertsitatea sustatzeko helburuz // 3



Dorre-begiratokia bukatu berri dute. I. GARCIA LANDA




Tolosako Babarruna
GOZA ITZAZU
www.tolosakobabarruna.eus
Tel.: 943 65 02 53



Mendi Tour jaialdiko film laburren lehiaketa, abian

Martxoaren 11tik 13ra bitarte ospatuko da Mendi Tour Tolosa jaialdia eta horren barruan film laburren lehiaketa antolatu du, beste behin, Tolosako Udalak

Josu Artutxa Dorronsoro

Hemen da Mendi Tour Tolosa jaialdia. Aurten, martxoko bigarren asteburuan ospatuko da, Tolosako Leidor aretoan, eta honen barruan, beste urte batez, film laburren lehiaketa antolatu du Tolosako Udalak. Dagoeneko martxan da lehiaketan parte hartzeko aukera, eta otsailaren 15a bitarte luzatuko dute epea. Lehiaketarekin herriko zein inguruko abenturazaleak mendiarrekin zerikusia duten lan desberdinak aurkeztera animatu nahi ditu udalak.

Aurtengo edizioan bi sari izango dira jokoan; film labur onenaren egileak 600 euro eramango ditu, eta Tolosaldeko lanik onenarenak, berriz, 400 euro.

OROTARIKO BALDINTZAK

Otsailaren 15era bitarte aurkeztu daitezkeen film laburrak mendiarekin edota abenturarekin zerikusia duten esperientziei buruzkoak izan behar direla azaldu du udalak. Parte hartzaileen inguruan, berriz, lanak nahi duen orok aurkeztu ditzakeela esan du, eta partaide bakoitzak, gehienez, bi lan aurkeztu ahal izango dituela nabarmendu du.

Iraupenari dagokionez, ikusentzunezkoek ezingo dute 5 minuturen langa igaro, eta beraz, formatu eta neurri laburreko lanak izango dira aurkeztu behar direnak. Egileek, nahi duten hizkuntzan aurkeztu ahal izan-



2016an aurkeztutako lanetako bat, Pablo Dendaluze eta Josu Iztueta tolosarren 'Biziminez' dokumentala izan zen. ATARIA

go dituzte euren ekoizpenak. «Hori bai, formatu digitalean egon beharko dute, eta originalak behar dute izan». Guzti hori aztertzeko eta lanak aukeratzeko ardura hartuko dutenak, mendiarekin eta ikus-entzunezkoekin lotura estua duten pertsonak izango dira.

Grabatutako irudiekin osatutako film laburrak, Plaza Zaharreko 6. zenbakian kokatuta dagoen Tolosako Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Udaten) aurkeztu ahal dira, astelehenetik ostiralera, goizeko ordutegian: 7:15etik 14:15era. «Ordenagailuz, Wetransfer plataforma erabiliz, kultura@tolosa.eus helbide elektronikora lanak bidaltzeko aukera ere izango da».

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak, Tolosako Udalaren

www.tolosa.eus webgunera jo dezake. Bestela, Kultur Etxearrekin harremanetan jarri ahal daiteke, 943 670 383 telefonora deituz, aurrez idatzitako helbide elektronikora idatziz, edota Trianguloa plazako eraikinean dauden bulegoetara inguratuz, astelehenetik ostiralera bitarte, 10:00etatik 13:00etara edota 16:30etik 19:00etara.

ARRAKASTA AREAGOTUZ

Tolosako Mendi Tour jaialdian Bilboko Mendi Filmeko lanik onenak ikusi ahal dira. Aurten bederatzigarren edizioa izango da eta martxoaren 11, 12 eta 13an ospatuko da, Leidor antzokian. Tolosako jaialdia Mendi Film Festival elkarteak, Tolosako Udalak eta Tolosa Gasak elkarlanean sustatzen dute. Iaz ere martxoan ikusi ahal izan ziren,

Tolosan, Mendi Filmeko lanik onenak, eta udalak azaldu duenez, jaialdiak 1.604 ikusle erakarr zituen. Orain arteko edizioak aintzat hartuta, ikusle gehien izan zituen izan zen pasa den urtekoa eta sarrera salmenta handienekoa ere izan zen. «Azpimarratzekoa da egun bakarrean lortutako ikusle datu onena: 643 ikusle iazko lehen egunean», esan du udalak.

Mendi Tour Tolosa jaialdiko lehen hiru edizioetan bi eguneko jaialdiak egin zituztela gogoratu dute eta 2011n 600 ikusle izatetik 2018an 1.000 gehiago izatera igaro zirela nabarmendu du. «Kultur eskaintza hau egonkortu egin da, eta ohitura bihurtu da Tolosan, Tolosaldean, eta baita Gipuzkoa osoan ere. Herrialde guztitik joaten baita publikoa Leidorrera».

GUTUNA

Asuncion klinikako zuzendaritzari eta erabiltzaileei gutun irekia

Asuncion klinikako LAB sindikatuko arduradunok eta langileok giza baliabide falta salatu nahi dugu. Urte osoko arazoa dena garai honetan areagotu besterik ez da egiten, gaixoei gure klinika betetzen dutenean.

Lan karga areagotu arren, urtean zehar dagoen langile kopurua berarekin betebehara eta zainketa guztiak aurrera ateratzea nahi dute, gaixoei behar bezala artatzea ezinezkoa delarik.

Egun hauetan klinikan dauden gaixo eta senideei jakinarazi nahi diegu gure esku dagoen guztia egiten ari garela arreta egokiena eskaintzeko. Era berean, klinikako zuzendaritzari, gaixoei eskaintako arreta eta zerbitzuak hoberenak izan daitezzen, behar diren giza baliabideak ezar ditzan eskatu nahi diegu.

Asuncion klinikako enpresa batzordeko LABeko arduradunak Tolosa

21. Korrika antolatze bilerak, gaur, Tolosan

TOLOSA // Korrika apirilaren 13ko goizaldean pasako da eskualdetik eta Tolosako batzordeak bere lehen bilera egingo du gaur, 19:00etatik aurrera, kultur etxean. Korrikaren nondik-norakoak ezagutzeko eta Tolosan egingo diren ekimenak lotzen hasteko aukera egongo da bileran. Lanak banatuko dituzte, eta ekarpenak ere egin ahal dira. Beraz, herriko eragile eta taldeak gonbidatzen dituzte parte hartzera.

Inauterietako txarangak antolatze bazarra

TOLOSA // Tolosako inauterietarako hilabete eskas falta denean, udalak antolakuntzari begira lanean jarraitzeko jai bilerara deitu ditu inauterietan parte hartzen duten txarangak. Bazarra gaur izango da, 20:00etan, kultur etxean.



Uzturpe ikastola lan eskaintza

Uzturpe ikastolako kontratazio batzordeak lanpostu hauen eskaintza egiten du:

- **DBHko gizarte zientzietako irakaslea.** Ingeles maila hobetsiko da.
- **DBHko zientzietako irakaslea.**
- **Heziketa Bereziko Lehen Hezkuntzako irakaslea.** Zeinu hizkuntza eta ingeles maila hobetsiko dira.
- **HHko teknikaria.** Lanaldi partziala.
- **Heziketa Bereziko hezitzailea.** Lanaldi partziala.

Bidali curriculumak, dagokion lanpostua zehaztuta, uztailaren 5erako, ondorengo helbidera: zuzendaria@uzturpe.eus

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Udalak Elosemi parkea inauterien ondoren zabaltzea aurreikusi du

Parkean egin den azken birmoldatze lana dorre-begiratokia berritu eta egokitzea izan da

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak orain arte Elosemi Parkean burutu diren lanak aurkeztu, amaitu berri den dorre-begiratokia ezagutarazi eta etorkizun hurbilean parkean garatuko diren jardueren berri eman du. «Behin obra nagusiak eginda, osagarriak izan litezkeenak hastear, eta seinaleztapena eta bestelako euskarriak errepasatu eta behar dena txukundu ostean, gure aurreikuspena eta asmoa da inauterien ondotik, martxoan zehar, Elosemi parkea herritarrei zabaltzea», esan du Patxi Amantegi alkateorde eta Ingurumen zinegotziak. «Haserako asmoa» muga batzuekin zabaltzea da: «Jada zehaztuta dagoen ibilbidean eta segurtasun bermea duten gunek egongo dira eskura, gainontzekoa mugatua egongo da seinaleztapen bidez».

Amantegik gehitu duenez, parkearen funtzionamendua zehazten ari dira. «Hala ere, argi dugu Elosemi egunez egongo dela zabalik eta gauez itxita. Ho-



Elosemi parkeko dorre-begiratokiko ikuspegia. I.G.L.

rretarako itxiera sistema bat ezarriko dugu». Orain arte burututako jarduerekin jarraituko dutela gaineratu du, eta herritarrek «parkera erakarri eta hiriko baso hau goza dezaten» nahi dutela.

Elosemi parkearen birmoldaketan, azken hilabeteotan, dorre-begiralekuan aritu dira batez ere. 72.500 euroko inbertsioa gauzatu du udalak utzitako zegoen borda berritu eta egokitzeke. Dorreak lehen zuten izaera oktagonala mantendu du. Lehen solairua eraberritu da, eta gainean eraiki da begiratokia. Altxairuzko pergola batek estaltzen du, lehen solairuak duen zortzi aldeko forma mantenduz. Pergolaren azpian eserlekuak ezarri dira. Bigarren solairu horrek, inguru osoan baranda bat

du. Begiraleku gisa duen ahalera «indartzea» izan da lanen helburuetako bat, esan du Amantegik: «Dorre-begiratokiak Tolosaren ikuspegi ezberdin bat eskaintzen digu».

2019ko aurrekontuan barneratu du udalak plangintza honetan ezarritako 5. fasearen gauzatzea: depositu-putzuaren birgaitze eta egokitzapena. «Eremu horretan urmael bat sortzea da gure helburua», adierazi du alkateordeak, «Elosemi parkeko biodibertsitatea sustatu eta osatzeko urak erakarri ohi dituen animaliekin. Lanak 2019an gauzatuko dira. Aurretiaz esan genuen eran, parke hau hiri biodibertsitatea sustatzeko gune izatea nahi dugu, ingurumen hezkuntza eta ikerketarako dituen aukerak lehenetsiz».



Arantxa Irazusta. ATARIA

Arantxa Irazusta izango da EH Bilduren alkategaia

Udal hauteskundeetan Alegian zerrendaburu izatea «ilusioz eta arduraz» hartu du Irazustak

Erredakzioa Alegia

Arantxa Irazusta Etxeberria izango da maiatzeko udal hauteskundeetarako EH Bilduren zerrendaburua Alegian. «Ilusioz eta arduraz» hartu duen zeregin honetan, bukatzeaz den legealdian udalean aritu diren hainbat izango ditu alboan, tartean egungo alkatea den Unai Iraola.

Zerrenda osoa antolatzeko badute ere, dagoeneko Alegiako EH Bilduko hauteskunde batzordeak bizkarrezurra baduela adierazi dute.

Bestalde, talde hori datozen urteetan aurrera eraman nahi duen Herri Programa osatzen ari dela jakinarazi dute: «Herritarrekin batera osatu nahi dugu programa eta horretarako azken urteotako balantzea egiten aritu gara orain arte. Inkestak egin eta ekarpenak jaso ditugu, batzarren bat ere egin da, eta antzeko bidean jarraituko dugu, aurrera begira udalak burutu beharrekoak zehazteko».

✉ GUTUNA

Itsasoan gertatzen dena, gure etxe parean hasten da

Fyschak plastikoz beteta ikusteak harrabotsa eta kezka sortu du azkenaldian, gure kostaldean dagoen kutsadura eta zikinkeria dela eta. Baina itsasoan amaitu duten hondakin horien zati handi bat gure lurraldetik joan da eta hori oso gutxitan aipatzen da, aipatuta ere ez da zehazten. Ematen du askoz errazago egiten zaiagula arazoa kanpoan kokatzea, baina hemen ere badauzka bere sustraiak.

Hemengo hedabideek ez digute horretarako aukera gehiegi ematen. Jendeak barneratu be-

har luke itsasoko irudi horiek guztiak ere badirela, eta arazoa gainditzera beharturik gaudela. Hori izan behar luke hedabideen lana. Baina esaten digute itsasoko milaka kilo hondakinen arazoa globala dela. Horrek ez du batere laguntzen, askoz gutxiago Indiaz hitz egiten digutenean. Bertoko erakundeek ere gaitz honen aurrean ez dituzte beharrezko neurriak abian jartzen. Ez gaituzte hezten.

Zenbat ubide, erreka, ibai eta haien ertzak ikusten ditugu, plastiko zuri eta beltzez edo beste motako hondakinez josita. Zenbat aldiz gelditzen gara ibaiari begira eta zenbat aldiz ikusten dugu plastikoak eta beste motako hondakinak bere bidea hartuta, itsa-

sorantz txalupak bezala doazela. Holako irudiak parean izatean garbi gelditzen zaigu ez herritarrek eta ez erakundeek ez diotela gaiari behar duen garrantzia ematen: ez gara ohartzen ingurumenarekin arazo handia dugula. Baina sinetsita gaude, ingurua eta ibaiak holaxe ikusita, behartuta gaudela haien egoera aldatzera, horregatik ezin gara isilik geratu. Ezin da onartu itsasoak jasaten duen kutsadurarekin gora eta behera ibili, eta aldiz, ibaien egoeraz ezer ez esatea, harreman zuzena baitauka han gertatzen denarekin. Hondakinek ez dute dagokien edukiontzian edo lekuan amaitzen, edozein bazterretan baizik. Hor dago gakoa: kudeaketa arazo baten aurrean gaude.

Ubideak, errekek, ibaiak... itsasoaren zainak dira eta hemen gertatzen dena gero itsasoan islatzen da. Berrito errepikatuko dugu: itsasoan gertatzen dena gure etxe parean hasten da. Zalantzarik gabe beste kontzientzia maila batera igo behar dugu. Oso lasai ikusten ditugu gure ibaiak zikinduta; bi edo hiru urtez behin garbiketa egin eta ehunka kilo ateratzen ditugu. Hondakinak eta zaborrak ez daude gure zain, uraren menpe baizik, ehunka kilo ateratzen badugu milaka itsasoratzen dira urak eramanda.

Barneratu behar dugu hondakinek ibaian amaitzea arazo bat dela eta ingurumenari kalte handiak sortzen dizkiogula.

Udalek eta foru aldundiek sen-

tsibilizazio kanpainak eta neurriak abian jarrita, eta horiek denboran mantenduta, aldaketa handia ekar dezakete. Beraien eskuan dago eta beraien betebeharra da. Dena daukagu irabazteko, keinu txikiekien handiak izan daitezke lorpenak.

Beraz, badakigu arazoa non hasten den, hondakinak ibaira eta itsasora nola ailegatzen diren ere bai... Orduan, bide gehiena eginda daukagu. Benetan itsasoren egoerak mintzen bagaitu eta hortik iristen zaizkigun irudiak aldatzea nahi badugu, eman dezagun urrats bat aurrera. Has gaitzen itzultzen ibaiari kendutako eskubideak.

Gorka Alberdi Gomez eta Asier Manso

Eguzkitalde ekologistaren izenean

Errespetua da garrantzitsuena

Eskola Kirolean parte hartzen duten Tolosaldeko ehunka haurrek parte hartu zuten larunbatean haka dantzan

Eneritz Maiz Tolosa

Kirolean izaten den indarkeria-
ren kontrako mezua sendotu zu-
ten larunbatean Tolosako Trian-
guloan, eta kirolaz gozatzeko
eskubidea denek dutela aldarri-
katu. Ilusiorik handiena, ordea,
Goazen telesaileko aktoreen eta
kirolari profesionalen ondoan ar-
gazkia ateratzeak egin zien berta-
ratutako gazteei.

Ekitaldia Goazen telesaileko
hiru aktoreek gidatu zuten: Iholdi
Beristain, Miren Arrieta eta Asier
Burgetek. Saioko protagonistek
gaztetxoei gogorazi zieten, nes-
ka edo mutil izan, kirol guztiak
denek egin ditzaketela, eta ga-
rrantzitsuena errespetua dela. Ja-
rraian, *Denok zu* abestia abestu
zuten denek elkarrekin.

Hakatoia festa bat dela adierazi
zuen Denis Itxaso Gipuzkoako
Foru Aldundiko Kultura, Turis-
moa, Gazteria eta Kiroleko di-
putatuak: «Kirola balioak trans-
mititzeko erreminta izugarria da.
Kirolaren bitartez ikasi ere egiten
dugu. Balio positiboak ikasten di-
tugu. Eta harmailera begira ja-
rri eta gurasoei ere eskatu nahi
diegu, errespetatu dezatela eta
gozatu dezatela zuek egiten ari
zareten kirol hori». Adierazi
zuen, esfortzua, talde lana eta ba-



Tolosako Trianguloa plazan egin zuten haka dantza. E. MAIZ

lore positiboak ikasteko balio
duela kirolak.

Olatz Peon Tolosako alkateak
ere ildo beretik jarraitu zuen, ba-
loreak nabarmenduz: «Herri ba-
tek dituen baloreak adostu eta za-
baltzea oso garrantzitsua da espa-
rru guztietan, eta baita kirolean
ere». Kirolak bere barruan balio
handiak eta asko dituela esan
zuen. Eta gaineratu zuen, abestu
eta dantzatutako kantuek esaten
duen moduan, «errespetua eta
irria» izan behar dituela.

Lau kirolari profesionalak ere
parte hartu zuten hakatoian dan-
tza eginez: Irene Caminosek, Ne-
rea Eizagirrek, Xabi Prietok eta
Imanol Agirretxek. Lehenik eta
behin Caminosek hartu zuen hi-

tza: «Kirola egitea gustatzen ba-
zaizue, aurrera egin. Errespetatu
zuen artean, eta garrantzitsuena
ondo pasatzea eta disfrutatzea
da». Atzetik Agirretxek hitz egin
zuen gaztetxoei eta gurasoei: «Ga-
rrantzitsuena kirola egitea da,
errespetuz eta lasaitasunez. Ba-
tez ere, gurasoek, kirolak trans-
mititzen dituen balore horiek
transmititu behar dizkiete seme-
alabei. Kirola, kirola izan dadila
eta ez dezagun urrundu kirol soi-
letik». Egunerokotasunean txi-
kiak eta handiak errespetatzeko
eskatu zuen, eta kirolarekin dis-
frutatzeke.

Adi-adi entzun zituzten hitz
horien ostean, guztiek egin zuten
haka dantza Trianguloa plazan.



ERAKUSKETA ZIZURKILEN

Plazida Otaño liburutegiko erakusketa gelan Astarbe sagar-
doteziak sustatuko ekimena abiatu zen ostiralean. *Sagardoa-
ren kondaira* izenarekin, martxoa bitartean erakusketa eta
kata maridatuak egingo dira herriko tabernetan. J.M.



AZKARATE, SORTERRIAN

Manu Azkarare euskal preso tolosarra sorterrian da. 2016ko
abenduan atzeman zuten azkenekoz Marseillan (Frantzia)
eta gero Espainiaratu egin zuten. Azkarate bezala, gaixo larri
dauden 21 euskal preso mantentzen dituzte espetxean. ATARIA

CA CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

Kale Berria, 46 behea. 20150 Villabona
Tf: 943 690 297 - 607 445 484
www.aburuza.com - aburuza@aburuza.com



Zabalduta da 'bertsotxaldia'

Urtero eskualdeko bertsozaleek duten hutsezinezko hitzordua da TOLOSALDEKO ATARIAK antolatzen duen bertso jaialdia, eta aurten ere, 800 lagun inguru bildu ziren Leidorren

Eneritz Maiz Tolosa

Hamargarrenean ere ez dute hutsik egin TOLOSALDEKO ATARIAREN bertso saioko bertsoek. Seriotik eta umoretik, Leidor guztiz bete zuen publikoari, txalo zaparradak eta irribarre zabalak atera zizkieten larunbatean bertsolariak.

Amaia Agirre gai jartzaileak urtero-urtero mimoz prestatzen ditu gaiak, eta larunbatean ere bikain erantzun zieten Oihana Iguaran amasarrak, Andoni Egaña zarauztarrak, Nerea Ibarzabal markinarrak, Haritz Mujika asteasuarrak, Maialen Lujanbio hernaniarrak eta Amets Arzallus hendaiarrak.

Sarrerakoan Arzallusek adierazi moduan, urte sasoi honetan sagardotegiekin egiten duten moduan TOLOSALDEKO ATARIAK bertso saioei eman die irekiera, Leidor aretoa bete. 800 lagunetik gora gerturatu zen Tolosako saiora. Nerea Ibarzabalek ere, urtarrileko Tolosako bertso saioaren «mitoa» barrutik eta bertatik bertara ezagutzeko aukera izan duela azpimarratu zuen oholza gainetik.

Larunbatean, bertso jaialdian izan ez zenak edota bertsoaldiak berriz entzun nahi dituenak, aste honetan izango du aukera TOLOSALDEKO ATARIAKO webgunean. Edota bestela, irrati bidez, (H)ari naizela irratsaioan.



Urtero bezala, eskualdeko bertsozaleek Leidor aretoa leporaino bete eta jaialdiaz gozatu ahal izan zuten. E. MAIZ



SANSEBASTIANEK UTZIDUTE BEREAK ESQUALDEAN

Ez bakarrik Donostian, Azpeitian edo Tafallan, Tolosaldean ere ospatu zen igandean San Sebastian eguna. Besteak beste, Berrobin eta Berastegin santuaren omenezko ermitetan mezak izan ziren eta berdina egin zuten Leaburun. Meza ostean, herriko ostatuan dantzariak aritu ziren eta udalak hamaiketakoak banatu zuen (ezkerreko irudian). Orendainen, berriz, hamaiketakora gerturatu ziren herritarrak eta trikitilariak alaitu zuten eguerdi partea. Segidan, Eltxo elkar-tean bildu ziren 45 herritar inguru, San Sebastian eguneko ospakizunekin jarraitzeko (eskuineko irudian). ATARIA

IKASTOLA elkarrekin
hezkuntza eraldatzeko

Matrikulazio epea urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra



KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

17. jardunaldia

Laskorain	San Juan	5-5
Lauburu	Otxartabe	3-3

Saillapena

1. Tafatrans	35p
2. Pinseque	35p
3. Lauburu Ibarra	35p
10. Laskorain	19p

Hurrengo jardunaldia

Laskorain (10)–Futsal Ibi (6)

Tafatrans (1)–Lauburu (3)

GIPUZKOAKO SENIORRAK

7. jardunaldia

Anoeta FT	Garoa taberna	2-4
Lauburu	Trintxerpe	2-1
Eskoriatza	Samaniego Orixe	6-0

Saillapena

2. Lauburu Ibarra	18p
6. Anoeta FT	6p
8. Samaniego Orixe Tolosaldea	0p

Boleibola

EUSKAL LIGA, BIGARREN MAILA

14. jardunaldia

Navarvoley	Tolobolei Bidebide	2-3
------------	--------------------	-----

Saillapena

1. Astillero	13-0
6. Tolobolei Bidebide	7-7

Hurrengo jardunaldia

Tolobolei Bidebide (6)

Universidad de Navarra (12)

Futbola

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

18. jardunaldia

Beti Gazte	Tolosa CF	3-1
------------	-----------	-----

Saillapena

1. Eibar	42p
3. Tolosa CF	35p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (3)–Elgoibar (13)

EUSKAL LIGA

18. jardunaldia

Tolosa CF	Goierri Gorri	2-0
-----------	---------------	-----

Saillapena

1. Arratia	44p
2. Tolosa CF	43p

Hurrengo jardunaldia

Derio (15)–Tolosa CF (2)

ERREGIONAL PREFERENTEA, LEHEN MULTZOA

17. jardunaldia

Orioko	Billabona KE	0-1
--------	--------------	-----

Ostadar

Tolosa CF 'B'

1-1

Saillapena

3. Billabona KE	34p
10. Tolosa CF 'B'	24p

Hurrengo jardunaldia

Euskalduna (1)–Billabona KE (3)

Tolosa CF 'B' (10)–Urnieta (12)

LEHEN ERREGIONALA, BIGARREN MULTZOA

17. jardunaldia

Intxurre	Vasconia	8-1
Danena	Euskalduna	5-0

Saillapena

1. Danena	38p
5. Intxurre	32p

Hurrengo jardunaldia

Danena (1)–Axular (2)

Asoleus (12)–Intxurre (5)

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

15. jardunaldia

Tolosa CF 'B'	Touring	1-0
---------------	---------	-----

Saillapena

6. Tolosa CF 'B'	20p
------------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Zumaiko (10)–Tolosa CF 'B' (6)

GORENGO MAILA, 2. MULTZOA

16. jardunaldia

Mutriku	Intxurre KKE	1-2
---------	--------------	-----

Saillapena

8. Intxurre KKE	12p
-----------------	-----

Eskubaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

16. jardunaldia

BM Barakaldo	Tolosa CF	19-26
--------------	-----------	-------

Saillapena

1. Anaitasuna	28p
2. Tolosa CF	26p
3. Casablanca	23p
4. Ereintza	22p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (2)–Casablanca (3)

Saskibaloia

LEHEN MAILA

12. jardunaldia

Urgatzi	69
Redline Mekanika TAKE	54

Saillapena

1. Tabirako	9-3
6. Redline Mekanika Take	7-5

Hurrengo jardunaldia

Redline Take (6)–Avia Zizur (12)

Galdu arren, ez da jardunaldi hain txarra izan Artolarentzat

Lehen mailakoan eta promozio txapelketan, Peña II.ak bakarrik irabazi du eskualdekoen artean

Erredakzioa

Binakako txapelketan, lehen mailakoan zein promozioakoan, ez da jardunaldi borobila izan eskualdeko pilotarientzat. Peña II.ak bakarrik lortu du garaipena. Hori bai, Artola alegiarrarentzat ere ez da hain txarra izan, partida galdu arren. Laugarren postuan mantentzen da, Mariezkurrena II. arekin batera, eta atzetik di-tuenak bi garaipenetara daude. Lehen mailakoan, Altunak eta Martijak ezin izan zioten aurre egin Olaizola eta Albisuri, eta aurreko astean izandako garaipenak ez du jarraipena izan.

BINAKAKO TXAPELKETA

9. jardunaldia

Altuna III	Martija	9
Olaizola II	Albisu	22
Elezkano II	Rezusta	22
Artola	Mariezkurrena II	14

8. Urrutikoetxea–Aretxabaleta

2-7

Saillapena

1. Elezkano II–Rezusta	7-2
2. Olaizola II–Albisu	7-2
3. Irribarria–Zabaleta	6-3
4. Artola–Mariezkurrena II	5-4
5. Ezkurdia–Galartza	3-6
6. Altuna III–Martija	3-6
7. Bengoetxea VI–Imaz	3-6

ALTUNA, IGANDEAN TOLOSAN
Hiru partidako jaialdia antolatu dute urtarrilaren 27an, 17:00etatik aurrera, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Estelarra Altuna III-Martija eta Irribarria-Zabaleta-ren artekoa izango da, lehen mailako txapelketakoa. Pilota

Hurrengo jardunaldia

Altuna III–Martija

Irribarria–Zabaleta

Artola–Mariezkurrena II

Urrutikoetxea–Aretxabaleta

PROMOZIO TXAPELKETA

3. jardunaldia

Agirre–Salaverri	22
Arteaga–Urretabizkaia	15
Peña II–Etchegoin	22
Alberdi–Erasun	16

aukeraketa ostegunean izango da, 13:30ean. Horrez gain, Promozio Txapelketako partidak ere jokatu dira. Aurrenekoa, Ugalde-Jaunarena eta Peña II-Aranguren artean, eta hirugarrena, Dario-Ruiz eta Arteaga II-Urretabizkaia II.aren artekoa.

Migel Soroaren finalak erabakita geratu dira

Erredakzioa

Migel Soroa Ogi Berri Txapelketaren bigarren finalerdiak larunbatean jokatu ziren Beotibarren. Murua-Gartzia, De La Fuente-Agirre eta Salaberria-Otaduy izan ziren aurrera egin zuten bikoteak. Etorkizun mailako finalerdia bizkorra izan zen. Murua-Gartzia 22-9 nagusitu ziren Mata-Aizpitarteren aurka. Hasieran zabaldu zuten tarte eta hortik aurrera irabazleek kontrolpean izan zuten partida. Muruak aurrean zazpi tanto egin zituen. Gartzia atzean bikain ibili zen, tanto bat eginaz eta bi kalerekin. Jubeniletan ere antzeko partida joan zen. Irabazleek tarte segidan zabaldu zuten eta erraz iritsi ziren 22ra. Unai Alberdi-Elosegi 7an geratu ziren. De La Fuenteren partida borobila izan zen. Sakez sei tanto lortu zituen



Peru Labaka, eskuinean, erremate bat egiten. AGERREMEDIA.COM

eta jokoan lau. Horrez gain, ez zuen kalerik egin. Agirre atzelariak ere ez zuen kalerik egin, baina bai hiru tanto lortu. Finalerdietako azken partida eliteen mailakoa izan zen. Peru Labaka zizurkildarrak Zezeagarekin osatu zuen bikotea. Aurkariak nagusitu ziren, ordea. Salaberria-Otaduy 22-17 nagusitu ziren. Jaialdiko partida ederrena izan zen. Aurrean ikuskizuna eskaini zuten bi pilotariek, tanto

ugari elkarri sartuz. Labakak 10 tanto egin zituen eta Salaberriak 12. Atzean, Zezeagak 6 pilota galdu zituen; Otaduy-k lau. Finalak urtarrilaren 26an, larunbatean, jokatu dira Tolosako Beotibarren. Jubeniletan, De La Fuente-Agirre/Lasa-Cuairan ariko dira; etorkizunekoetan, Murua-Gartzia/Julen Eguiguren-Apezetxea; eta elite mailan, Salaberria-Otaduy/Zubizarreta-Uriondo.



EURIAK EZ DITU KORRIKALARI GAZTEAK KIKILDU

Ero-Etxe elkarteak XXXII. Krosa antolatu zuen igandean, Tolosan. Aterrunek izan ziren, baina gogotik egin zuen euria zenbat garaitan. Hala ere, ume asko izan ziren korri egiten. Urtarrileko azken aurreko igandean antolatu ohi du Tolosako elkarteak gaztetxoentzako krosa eta urtero izaten da arrakastatsua. 700 ume inguruk emana zuten izena eta horietako asko animatu ziren lasterka egitera, eguraldiak gehiegi lagundu ez arren. Partaide guztiek garaikurra eramane zuten, eta aurtan, Ero-Etxe elkartearen ikurra zutenak banatu zituzten umeen artean, lehenengo aldiz. Aurreneko lau sailkatuentzat sari bereziak eman zituzten. Urtean zehar, krosa prestatzeko, sei bat lagunez osatutako batzordea aritzen da lanean Ero-Etxe elkartearen eta igandean 60 lagun inguru aritu ziren lanean, guztia antolatzen. JON MIRANDA

Larrarte, Espainiako txapeldun omniumean

Erredakzioa

Eukene Larrarte tolosarra izan da Espainiako Txapelketaren garaile pistako txirrindularitzaren omnium proban, asteburuan jokatutako lehiaketan. Bera eta Ana Usabiaga ziren faboritoak lehen postua eskuratzeko eta azkenean tolosarrarentzat izan da.

Norgehiagoka estua izan zuten bi txirrindularien artean. Usabiaga indartsu hasi zen, scratchean zein Tempo Race probak irabaziz, eta Larrartek bigarren eginez. Kanporaketa proba tolosarrarentzat izan zen, eta



Sari banaketan izan ziren Larrarte eta Amondarain. ATARIA

hor Usabiagak puntu garrantzitsuak galdu zituen laugarren egin baitzuen. Puntuazio proban Usabiaga lurrera erori zen, eta Larrartek urrea eskuratu zuen.

Espainiako Kopan eta junior mailan, Naia Amondarain ibararra gailendu zen, kanporaketan eta puntuazio probetan irabazi eta gero.

Hirugarren postuarekin hasi dira tiratzaileak

Erredakzioa Ibarra

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketaren jardunaldia jokatu zen igandean Mungian, eta 640 eta 540 kilo mailan lehiatu ziren taldeak. Bertan izan ziren Ibarako tiratzaileak ere.

Lehen jardunaldian hirugarren postua lortu zuten Ibarako tiratzaileak, gizonezkoetan eta emakumezkoetan. 640an, Lesakako Beti Gazte izan zen nagusi, tiraldi guztiak irabaziz. Bigarren

Murueta geratu zen eta hirugarren Ibarra. Biek 4,5 puntu lortu zituzten. Laugarren Zuraide izan zen, bosgarren Txantrea eta azkena 6 Conceyos.

540 kilotan Laukizko Gaztedi nagusitu zen, jokoan zeuden lau puntuak irabazita. Bigarren Badaiotz izan zen eta hirugarren Ibarra, bi punturekin. Azkena Txantrea geratu zen.

Bigarren jardunaldia igande honetan jokatuko da. Finala, aldiz, Ibarra izango da, otsailaren 2an.

atarian jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2019KO URTARRILAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 22

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. Arropa kolektibizatze aukera egongo da, 18:00etan, Kz Gunean, Ibarako Gazte Asanbladak eta Antolakuntza Komunalak antolatuta.
Tolosa. Irakurketa taldean Angelika Schrobsdorff idazlearen *Túno* eres *como otras madres* liburua izango dute aztergai, 18:30ean, Aranburu jauregian.
Tolosa. Korrikabatzordearen lehen bilera 19:00etan, kultur etxean.
Tolosa. Inauteri txarangak antolatze-kobiler 20:00etan, kultur etxean.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Negubete-beteko eguraldia. Goizean hego-mendebaldeko haizearekin giro nahiko lasaia izango dugu, nahiz eta tarteka euri pixka bat egingo duen. Eguerdian haizeak ipar-mendebalde-eragin, zakartu eta euritara joko du nabarmen. Fronte sendo bat sartuko da eta horrekin euri zaparrada mardulak eta ia etengabeak izango ditugu. Temperatura maximoak goizean emango dira non 6-7 gradu harrapatuko diren. Egunean zehar hozten joango da eta elur mailak behera egingo du, arratsalde-gau partean 600-700 metroan elurra egingo duelarik. Puntualki, batez ere, Tolosaldea ekialdean, beherago ere egingo du, 400-500 metroan.

Bihar. Ildo beretik jarraituko du. Egun osoan zehar zaparrada mardulak eta ia eten-

gabeak botako ditu. Litro asko pilatuko dira. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du, zakar gainera eta tenperaturak hotzak izango dira, maximoak 5-6 gradutan joko dutelarik goia.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguneko albisteak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Joseba Landa Bartzelonatik, Amaia Arranz arkeobotanika eta Aintzane Artolaren errezeta.
11:00-12:00. Hamaiketako. Villabona-Aiztondoko albisteak.
12:00-13:00. Entzuteko jaioak.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00-20:30. Kokondo. Oskar Tenaren musika saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
16:30. Ttap; Onintza Enbeita.
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
22:15. ATARIA bertso saioa.
23:00. Zer jan.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunkoa. Edurne Mujika Martinez, Euskal Herria kalea, 3. Telefono zenbakia: 943 67 09 15.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza, Amarotz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 51 18.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



TOURETTE SINDROMEAK, IPUIN BATEAN

Afesta elkarteak Tourette sindromea zer den azaltzen duen ipuina kaleratu du. Amaya Alvarez bilbotarrak idatzi du gaztelaraz *Un viaje diferente a los demás* izenburuarekin, baina euskaraz ere badago, Tolosako Amando Hernandezek itzuli baitu. Liburua Tolosako Haur Liburutegian aurkeztu zuen elkarteak eta bertan izan zen ere Porrotx pailazoa. Tourette sindromea duten 8 urteko bi haur dira ipuineko protagonistak. ASIER IMAZ

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm · 105.0 fm



1 ALBAOLA itsas kultur faktoria

Familiarentzako sarrera
(bi nagusi eta ume bat)

www.albaola.com
Pasai San Pedro • 943 39 24 26
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 TXURI URDIN irristaketa libre

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua,
24 DONOSTIA
Tel.: 943 46 44 04
www.eltxuri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 EKAINBERRI museoa

Bi lagunentzako sarrera bikoitza



www.ekainberri.com
ZESTOA 943 86 88 11
info@ekainberri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun izateak badu saria zozketa